



BIZKAIKO ELKARRERAGINGARRITASUN-PLATAFORMA

Dokumentua – Sarrerako/Irteerako datuak

Zerbitzua: Langabezia-prestazioen egungo egoera kontsultatzeko zerbitzua.



DESKRIPZIOA

Langabezia-prestazioen egungo egoera kontsultatzeko web zerbitzuak bide ematen du langabezia dagoen herritar batek hartutako prestazioak kontsultatzeko.

Zerbitzua Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoarekin (EEZPrekin) konektatuko da.

ESKATUTAKO DATUAK

- **DokumentazioMota + Dokumentazio zk.**

EMAITZAKO DATUAK

Langabezia-prestazioen egungo egoera kontsultatzeko zerbitzuak bide ematen du langabezia dagoen pertsona batek hartutako prestazioen egungo egoera kontsultatzeko. Zerbitzuak hauek ematen ditu:

- Pertsona fisikoaren identifikatzailea (agiri-mota), EEZPk daukana (NAN/AIZ).
- Egoeraren adierazlea: ea EEZPk baduen prestazioen gaineko informaziorik kontsultatu den titularrarentzat (bai edo ez).
- Herritarrak **hartutako prestazioaren mota** (aitortutako azken eskubidearena). Izan daitezkeen balioak:
 - Erabateko langabezia / Enpleguaren Oinarrizko Legea.
 - Langabezia partziala / Enpleguaren Oinarrizko Legea.
 - Gizarte Segurantzako Nekazaritzaren Araubide Bereziaren subsidioa.
 - Erabateko langabezia. Nekazari finkoak.
 - Langabezia-subsidioa. Nekazari finkoak eta nekazaritza-errenta.
 - Osasun-laguntza. Nekazari finkoak.
 - Langabezia-subsidioa / Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testuategina.
- **Prestazio horren egoera** (ALTA edo BAXA). Izan daitezkeen balioak:
 - ALTA: kontsultatutako pertsona langabezia-prestazioa kobratzen ari da.
 - BAXA: kontsultatutako pertsona ez da langabezia-prestazioa kobratzen ari.
 - Baxa AIOAn (Atzeritarren Itzularako Ordainketa Aurreratua).
 - BAXA, prestazioa kapitalizatu duenean.
- **Eskubidearen egungo egoeraren hasierako eta amaierako datak.**
 - Prestazioaren hasiera-eguna:
 - *Egungo egoera ALTAkoa bada, kontsultatutako pertsona langabezia-prestazioa kobratzen hasi zen eguna adierazten du.*
 - *Egungo egoera BAXAkoa bada, kontsultatutako pertsonak langabezia-prestazioa kobratzeari laga zion eguna adierazten du.*
 - Prestazioaren amaiera-eguna:
 - *Egungo egoera ALTAkoa bada, langabezia-prestazioarako emandako kobrantza-aldia adierazten du. Amaiera-eguna adierazten du.*
 - *Egungo egoera BAXAkoa bada, eremu hau hutsik azalduko da.*
- Eskubide osoaren gainean aitortutako egun guztien kopurua.
- Gastatutako egunen kopurua.
- Eguneko oinarri arautzailea.
- Kontingentzia arrunten oinarria.
- Atxikipen judizialaren, enbargoaren eta oker kobratutakoaren adierazleak (horrelakorik baduen edo ez).



Itzultzen diren egoera-kodeak, erroreak daudenean:

0000	Derrigorrezko datu bat edo batzuk ez dira zuzen informatuak izan.	Hori gertatuko da sarrerako datuetan balidazio-erroreak egon eta eskaera EEZPri bidali barik geratu denean.
0233	Identifikatu gabeko titularra.	Identifikatzailea ez dago EEZPren datu-baseetan.
0232	Agiriak identifikatzaile bat baino gehiago dauka.	Arazoa dago identifikatzailea bikoiztuta dagoelako. Enplegu bulegora joan behar du.
0238	Informazioa ez dago eskuragarri.	Hori gertatuko da egungo datan titularraren daturik ez dagoenean.
0226	Parametro ez-zuzenak.	Errorea datuetan. Ezin da eskaera izapidetu. Itzultzen da EEZPk daturen batean errorearen bat antzematen duenean (inkongruentzia).
0231	Agiri-mota ez dator bat adierazitako formatuarekin (NAN/AIZ).	Hori gertatuko da agiriaren zenbakiaren formatua bat ez datorrenean adierazitako agiriaren motarekin.
07	Herritarrak adierazi du bere datuak babestu nahi dituela.	Hori gertatuko da herritarrak bere datuak babestea eskatu eta datuok organismoak ezin itzuli dituenean.



BERTSIOAREN KONTROLA

V00	Jatorrizko bertsioa	2018/03/20
-----	---------------------	------------

GLOSARIOA